

Arima. Berriketan (txalaparta + flamenkoa)

Ekitaldiak

Vital Fundazioa Kulturunea

A Aretoa

2024ko ekainaren 13a

20:00h

5€



Fundación Vital Fundazioak ARIMA ikuskizuna dakar Kulturunera, Euskal sustraiak eta flamenkoa uztartzen dituen proiektua, perkusio, gitarra eta kejoen artean, dantza eta txalapartaren arteko elkarrizketak ikus eta entzun daitezke. Alegria, buleria, tangoak, fandangoa eta beste hainbat erritmo ezberdin harturik, goxotasun eta energia handiko ikuskizun berezia eskeintzen du berriketan taldeak.

Informazioa

- Askoa Etxebarrieta "La Pulga"

- Askoa Etxebarrieta Lasherak, La Pulga, lau urterekin hasi zen ballet klasikoko ikasketak egiten. Horiek amaitu ondoren, Gasteizen, Bilbon Solange Lefortekin osatu zuen bere prestakuntza, eta Madrilen Víctor Ullateren eskolan. Askoa Etxebarrieta Lasherak, La Pulgak, flamenkoa deskubritu zuen tailer herriko batzuei esker eta dantza honen iratxo magikoa bere baitan esploratzea eta harrapatzea erabaki zuen.
- **Angel Lopez de Toro**
 - Bere haurtzarotik, Paco del Pozo, Talegón de Córdoba (biak Casa Patas Kontserbatorioko irakasleak) eta Caridad Vega bezalako artistekin klaseak hartu ditu. Flamenkoko hainbat eskola nazionaletan, besteak beste, Amor de Dios (Madril) eta nazioartekoetan, Frantzian, Kroazian, Eslovenian eta Pepa Molina, Amelia Vega "La Meli", Sara Nieto "Sarini" bezalako artistekin kantari gisa parte hartuz osatu zuen bere prestakuntza.
- **Aitor Korta**
 - Tradizio musikal handiko familia batean jaio zen, eta Zestoako Udal Bandan hasi zen musikan, klarineta joz. Oso gaztetatik eman zizkien eskolak haurrei musika eskolan. Talde desberdinekin disko bat grabatzeko eta diziplina eta arte flamenkoaz gehiago ikasteko aukera izan zuen eta, agian, Ea taldekoekin (taldeetako bat) ondu eta gorpuztu zuen flamenko sorginarekiko miresmen hori izango da gaur Berriketan taldearekin aurkeztuko duten proiektuaren ernamuina.
- **Mikel Aveiro**
 - 13 urte zituenetik musikaren munduari lotuta egon da. Perkusioak erakarrita, instrumentu ezberdinak ikasten ditu: kongak, kaxoia, txalaparta... Hainbat maisurekin trebatu zen, Euskal Herrian, Afrikan eta Kuban. 2003an, Afrikako dantza eta perkusioa txalapartarekin uztartzen dituen TTAKUNPA ikuskizuna sortu zuen, Euskal Herrian zehar eta estatu mailan hainbat jaialditan ibili zena.
- **Miguel Linares**
 - Miguel Linares (Miguel General) hamaika urterekin hasi zuen bere karrera. 1981ean Lieja, Viena eta Pariseko Gitarra Jaialdian parte hartu zuen Aldi Meola, Leo Brower, Serranito, Rafael Fays eta beste hainbat gitarra-jotzaile ezagunekin batera.
- **Adrian Larrañaga**
 - Musika Hezkuntzan diplomatua, Ertxiña Musika Eskolan (Zestoa) irakasle dihardu duela 10 urte baino gehiagotik. Bertan, solfeoa, instrumentu taldeak, panderoa, perkusioa eta haurrentzako tailerrak irakasten ditu.
- **Eider Elorza**
 - Eider Elorza donostiarra, Eira, abeslari, konpositore eta aktorea da. Musikari gisa, bere estiloa moldakorra da; izan ere, souletik datorren eragina agerikoa bada ere, folklorea, jazza, reggaea... ere abesten ditu. Maila zabala du eta ahots gozo eta indartsua, adierazkorra eta pertsonala.

Sarrerak

Sarrerak 5 eurotan eros daitezke ondorengo formularioan:

SARRERA(K) EROSI